



HAL
open science

Lapurtera klasikoaren oinarriez: E. Materraren Doctrina christianaren iturriak

Eneko Zuloaga, Dorota Krajewska, Ekaitz Santazilia

► To cite this version:

Eneko Zuloaga, Dorota Krajewska, Ekaitz Santazilia. Lapurtera klasikoaren oinarriez: E. Materraren Doctrina christianaren iturriak. *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 2020, 25, 10.5944/rllegv.vol.25.2020.28907 . artxibo-03018556

HAL Id: artxibo-03018556

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-03018556v1>

Submitted on 22 Nov 2020

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Lapurtera klasikoaren oinarriez: E. Materraren *Doctrina christianaren* iturriak*

On the Foundations of Classical Labourdin: the Sources of E. Materra's Doctrina christiana

ENEKO ZULOAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea. (UPV/EHU)
eneko.zuloaga@ehu.eus

DOROTA KRAJEWSKA

Euskal Herriko Unibertsitatea. (UPV/EHU)
dorota.krajewska@ehu.eus

EKAITZ SANTAZILIA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. (UPNA/NUP)
ekaitz.santazilia@unavarra.es

Recibido: abril de 2019. Aceptado: abril de 2020

Laburpena: Lan honetan Esteve Materraren *Doctrina christiana* lanaren lehenengo bi edizioen (1617, 1623) iturriak ditugu aztergai. Kontrarreforma-sasoian Lapurdiko irakurleentzat argitaratutako lehenengo dotrina izan zen Materrarena, eta oraintsu arte galdutzat jotzen zen lehenengo edizioaren ale bat aurkitzeak ikuspegi berria ekarri du egileaz eta obraz. Bada, XVI. eta XVII. mendeetan Europan argitaratutako hainbat katixima aztertu eta Materrarenarekin erkatu ondoren, argudioak bildu ditugu proposatzeko azken horren iturri direla Roberto Bellarmino italiarraren lanak. Hemen aurkezten den obren arteko konparazio sistematikoak bidea ematen du baieztatzeko Materrak Bellarminoren lanak baliatu eta egokitu zituela, eta argia dakar, beraz, lapurtera klasikoaren obra aitzindariaren sortze-prozesuaz.

Hitz gakoak: euskal testuak, filologia, XVII. mendea, Kontrarreforma, Esteve Materra

* Lan honek honako ikerketa-proiektu eta talde hauen babesa izan du: “Monumenta Linguae Vasconum (V): cronología y periodización” (FFI2016-76032-P), “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (IT1344-19) eta “Diacronía de la animacidad: aproximación tipológica al origen de las marcas animadas” (PGC2018-098995-B-I00).

Abstract: In this paper we analyze the sources of the first two editions of Esteve Materra's *Doctrina christiana*. Materra's doctrine was the first catechism published in Labourd during the Counter-Reformation, and the recent discovery of a copy of the first edition has brought new information on the author and his work. After having analyzed and compared several catechisms published in Europe in the 16th and 17th centuries, we have arguments to propose that the main source were the works of the Italian Roberto Bellarmino. The comparisons presented here show that Materra used and adapted Bellarmino's books, which shed light on the creation process of the precursor of Labourdin literature.

Keywords: Basque texts, philology, 17th century, Counter-Reform, Esteve Materra

I.- SARRERA

Euskal Filologiaren tradizioak, beste edozein filologiarenak bezala, jomuga izan du, besteren artean, testu bakoitzaren iturrien ikerketa; izan ere, dotrina, gramatika zein hiztegi baten azpian dautzan iturriak ezagutzea lagungarri da lanak eurak historian hobeto kokatzeko, bai eta gaur egun ikusezin diren lotura eta harremanak berreraikitze ere. Euskal idazle klasikoen artean, gehienbat gramatika eta hiztegien iturriak aztertu dira azken hamarkadotan: Pouvreau (Etxagibel 2015), Urte (Gómez 2010), Harriet (Urgell 2009), Larramendi (Urgell 2000, 2002, 2010), Astarloa (Gómez 2004) zein Aizkibelen (Gómez 2008) iturriez egindakoak aipa daitezke XXI. mendean argitaratutakoen artean. Halaber, badira lanak izen handiko zenbait idazleren iturriez: Etxepare (Aldekoa 2010), Leizarraga (Salaberri Muñoa 2010a, 2010b, 2014, Mounole + Lakarra 2018), Axular (Salaberri Muñoa 2000, 2001, 2016, 2017a, 2017b, Bilbao 2014a), Haranburu (Salaberri Muñoa 2013), Etxeberri Sarakoa (Bilbao 2014b), Kardaberatz (Arejita 2004), Xaho (Peillen 2011), Lazarraga (Bilbao *et al.* 2020) eta abar.

Aurrekoen ildotik, lan honek osatu egiten ditu azken urteotan Esteve Materra euskal idazle klasikoari buruz egindako ikerketak. Materra dugu *lapurtera klasiko* deitutakoaren aitzindaria, beste izen batzuk (Axular, Etxeberri Ziburukoa...) ezagunago diren arren.

Lapurtera klasikoaren abiaburu da, beraz, Esteve Materraren *Doctrina christiana*, lehenengoz 1617an argitara emana eta mende hartan bertan hainbatetan moldaturik argitaratua. Hain zuzen ere, oraintsu arte galdutzat jotzen zen lehenengo edizioaren ale bat aurkitu izanak berpiztu egin zuen egilearen inguruko interesa. Krajewska *et al.* (2017) lanean 1617ko zein 1623ko argitalpenen edizio kritikoak, eta egileari eta garaiari buruzko hainbat datu berri aurkeztu ziren, bai eta liburu horietan agertzen den hizkeraren gramatika eta hiztegia ere. Ordukoan, ordea, argitu gabe geratu ziren Materrak bere *Doctrina christiana* prestatzeko baliatu zituen iturriak. Lan honen helburua da hutsune hori hein batean betetzea; alegia, Materrak erabili z(it)uen iturri nagusia(k) aurkeztea eta hori pentsarazten diguten argudioak ematea.

Horri ekiteko, Materraren dotrina argitaratu zenean Lapurdin zegoen egoera soziopolitikoaz eta erlijiosoaz zertzelada batzuk eman ditugu, eta horrek tokiko literaturan izan zuen eragina azaldu (§II). Ondoren (§III), Europan oro har katiximak nola eta zertarako zabaldu ziren azaldu dugu. Gero (§IV), Materraren dotrinaren iturriak zein diren azaltzeari eta frogatzeari ekin diogu. Azkenik (§V), ondorio nagusiak aurkeztu ditugu.

II.- LITERATURA KONTRARREFORMISTA LAPURDIN

2.1 Kontrarreforma eta lapurtera klasikoa

XVII. mendean, Lapurdiko idazleen obrek XIX. mendea baino lehen gainerako euskalkietan ezagutu gabeko sendotasuna eman zioten Lapurdiko euskarari. Elizaren xedea zen ikuspegi protestantea desagerraraztea eta, horretarako, erreforma katoliko (ultra)ortodoxoa bultzatu zuen. Trentoko Kontzilioaren (1545-1563) gurpilean azaldu izan da Lapurdiko idazleek XVII. mendean sortutako tradizio sendoa, hainbat idazle eta genero landu zituen eta gutxi gorabehera 1615-1690 artean iraun zuena.

Aski denbora-tarte laburrean hainbat idazle eta lan agertzeak (beste garai eta eremu batzuekin alderatuta, behintzat), eta paratestuetako informazioa ez konbentzio erretoriko-literariotzat baina deskripzio errealistatzat jotzeak mitifikazioak eragin ditu; nagusia, *Sarako eskola* deitutakoa (Lafitte 1940, Michelena 1960, Sarasola 1976 eta abar). Eskola hori konstruktua funsgabea dela erakutsi zuten Urgellek (1991) eta Salaberri Muñoak (2002), eta azkenaldiko ikerketek ere (Krajewska *et al.*, 2017, Zuloaga + Krajewska inprimategian) hori berretsi dute: ez dago daturik *eskola* existitu zela pentsatzeko. Ikuspegi tradizionalaren arabera, gainera, hierarkiak irudikatu izan dira idazleen artean: Axular jo da guztietan gorentzat, eta bigarren, hirugarren zein laugarren mailetan geratu izan dira oraindik sakon aztertzeko dauden bestelako idazle eta lanak, hala nola Materrarena.

XVII. mendeko lapurtar idazleek antzeko ezaugarriak dituzte. Denen agintemaita eta kargua bera izan ez arren, denak ziren elizgizonak eta denek zuten helburu berbera: Kontrarreforma bultzatzea eta errotzea. Horrez gain, idazle horiek guztiek Frantziako beste eremu batzuetako egileek sasoi batean izan ez zuten babesia izan zuten: Elizako agintariena. Ordena erlijiosoek eta apezpikuek berebiziko eragina izan zuten Kontrarreforma gauzatzeko zereginetan (Bergin 1999, Suire 2000): Trentoko Kontzilioari jarraikiz, alde batetik eredugarri izan behar zuten zegokien gizartean, eta gizarte hori ezagutzeko bidaia eta bisitak egin behar zituzten; beste alde batetik, areagotu egin zen haien boterea. Testuinguru horretan, gogoan hartzekoa da Elizak hainbat hamarkadaz babestu zituela Lapurdiko idazleak eta babes horri loturik ulertu behar direla bai lapurtera klasikoaren sorrera, bai gainbehera (Zuloaga + Krajewska inprimategian).

Lapurtera klasikoaren sorrerari dagokionez, Bertrand Etxauz apezpikua gako izan zen: idazle eta obren babesle eta sustatzaile garrantzitsua izan zela erakusten dute 1615-1650 bitarteko zenbait liburutako paratestuek, nahiz eta

Etxauzi buruz esan direnetan mitifikazio-kutsurik ere aurki daitekeen (Salaberri Muñoa 2002, 2015). Hain zuzen ere, Materrak Etxauzi eskaini zion bere 1617ko kristau-dotrina, eta liburuaren sortzailetzat eta iturritzat jo zuen.

Eskaintzak eskaintza eta mitifikazioak mitifikazio, argi dago Etxauzen helburu nagusia katolizismo ortodoxoa sendotzea zela; beraz, esparru horretan ulertu behar da idazleei emandako babesa, hau da, Kontrarreforma hedatzeko plan bateko kide gisa. Etxauzek argi ikusi bide zuen herritarrengana iristeko euskaraz argitaratu beharra, eta pentsatzekoa da hark bultzatuta prestatu zuela Materrak ere bere dotrina. Estatuak ezikusiarena egiten zuen hizkuntza minorizatuaren aurrean, baina Trentoko Kontzilioak bultzatutako ebanjelizazioa lortzeko, Elizak ezin zezakeen jokatu herritar orok latina edo frantsesa menderatuko balute bezala: mezu erlijiosoa hedatzea oztopatzen zuen errealitate linguistikoari egin behar izan zion aurre (Corouau 2012: 160). Hor txertatu behar da, gure ustez, European hedatzen ari zen katiximen generoa Lapurdira eta euskarara ekartzeko beharra.

2.2 Esteve Materra: egilea eta lanak

Informazio gutxi dugu Materraren bizitzaz, eta ezagutzen dugun gehiena haren lanetatik aterea da: badakigu frantziskotarra zela, Teologia ikasi zuela Parisen eta Frantziako hego-mendebaleko monasterioetan ibili zela; esate baterako, 1610ean Baionan bizi zen (Dedieu 1977: 97) eta zazpi urteren buruan La Réoleko frantziskotarren komentuko burua zen. 1623an Frantziako Tolosan bizi zen, eta 1628an Rodez aldean. Halaber, aintzat hartzekoa da Paristik kanpo argitaratutako lanak Frantziako hegoaldean agertu izana (Bordelen, Rodezen eta Frantziako Tolosan), eta eskaintzetan ere hegoaldeko erakunde eta pertsonak aipatu zituela, hala nola Frantziako Tolosako Sainte Claire monasterioa eta Rieuxeko apezpikua.

Euskal Herrian euskaraz idatzitako katiximari esker da Materra ezagun, eta arreta lan horretan jarrita, oraintsu arte euskalariak ez dituzte haren beste lanak bereziki aztertu: Villasantez (1961) geroztik bagenekien frantsesez ere kaleratua zuela lanen bat, baina ez askoz gehiago. Waddingek (1650: 320) argitara emandako katalogoan ere euskaraz idatzitako dotrina eta *L'Horologe spirituel* (1606) lana besterik ez dira aipatzen, eta beroriek jaso zituen Juan de San Antonioren katalogoak (San Antonio 1733: III, 108). Bada, *Doctrina christianaren* 1617ko alea aurkitu ondoko ikerketek erakutsi dutenez, ez bigarren mailako, ezpada garrantzi handiko egilea izan behar zuen Materrak. Zehazki, gutxienez haren bost lan identifikatu dira (Krajewska *et al.* 2017), bostak frantsesez idatziak: Juan Márquezen eta Diego de la Vegaren gaztelaniazko lanen itzulpenak (*Les deux estats de la spirituelle Hierusalem Militante et triumpante*, N. du Fossé, Paris, 1607 eta *Employ et saint exercice sur les Evangiles des dimanches de l'année*, N. du Fossé, Paris, 1608), *L'Horologe spirituel* (C. Seuestre, Paris, 1606), izurrite-garaietarako otoitz bilduma bat (*Recueil de pri'eres en temps de contagion*, A. Grasaigne, Rodez, 1628) eta konfesio onerako eskuliburu bat (*Le Directeur familier*, J. Foude, Frantziako Tolosa, 1645).

Bibliografiak erakusten duenez, beraz, euskarazko dotrina argitaratu orduko Materrak bazuen idazle-eskarmentua, eta emankortasun literario hori bete-betean ezkontzen da ordena erlijiosoek (karmelitak, frantziskotarrak, jesuitak...) Kontrarreformaren zabalkuntzan hartutako ardurarekin. Materra, sortzaile ez ezik, itzultzaile eta moldatzaile ere izan zen, eta horrek erakusten du ez zela nornahi Elizaren barnean: bazuen pisurik Kontrarreformako autoreen artean.

Aurrekoak aintzat hartua, bitxi suertatzen da autoritate erlijioso batek Ipar Euskal Herrira bidaia eginda hamar-hamabi hilabete euskara ikasi eta dotrina idatzi izana (hala azaltzen du dotrinaren hitzaurrean). Izan ere, orduan bazegoen hori egin zezakeen apaizik Lapurdin, hala nola dotrina argitaratzea baimendu zuten elizgizonak (eta, horien artean, Axular). Arrazoitze-ildo horretatik proposatu da Materrak, bere postu eta kategoriatik, dotrina prestatzeko lanak koordinatu edo gidatu zitzakeela, baina ez zuela zertan dotrina berak idatzi edo euskaratu: Etxauz apezpikuak eta garaiko Elizako agintariek deituta jo bide zuen Materrak Lapurdira, idazle kontrarreformista gisa zuen pisuagatik (Krajewska *et al.* 2017: 14-15). Are gehiago, Materrak dakarren hizkuntza-eredua lapurtar idazleek ondoko hamarkadetan erabili zutena da: eredia eratu eta finkatua zen 1617an. Gure ustez, baliteke liburu inprimatuen bidez erabat egonkortu baino lehen eredia finkatuxe izatea; alegia, Materrarenean «hain garbi» agertzen den eredia, neurri batean behintzat, Lapurdiko elizgizonek eguneroko predikazio-lanetan lehenago baliatzen zuten bertsua izatea (Zuloaga + Krajewska inprimategian).

Ikuspegi historikotik garrantzitsua izan zen Materraren lana. Lehenik eta behin, lan hori izan zen hamarkada batez irakurgai bakarra Lapurdiko bizilagunentzat; beraz, Kontrarreformari hasiera emateaz gain, obra gakoa izan zen, eta bere arrakasta islatzen du XVII. mendean bertan izandako berrargitalpenen kopuruak. 1623an argitaratu zen bigarrena, lehenengoaren edukiak biltzeaz gain, hirugarren atal bat ere badakarrena. Hirugarrena 1648an kaleratu zen, 1623koari jarraikiz baina latinezko zenbait pasarte gehituta. Laugarrena 1693an agertu zen, 1648koa oinarri hartuta eta hainbat zuzenketa erantsita Duronea izeneko apaizaren eskutik. Dakigula, bosgarren argitalpena izan zen azkena: 1704an kaleratu zen, eta prestatzaileak 1648ko eta 1693ko aleak baliatu zituen.

Obraren helburuak ere ez ziren nolana hikoak, eta interesgarriak dira 1617ko edizioaren aurkikuntzak ekarritako datu berriak: paratestuetan edonork irakurtzeko moduko lana dela esaten da, baina bereziki azpimarratzen da hartzaileak haurrak direla. Hain zuzen ere, haurrak hartzaile izateak gogorarazten digu bazirela XVII. mendearen bigarren erdian Ipar Euskal Herrian *petites écoles* izeneko auzo-eskolak (Oyharçabal 1999): badirudi halakoetan erabiltzeko lan aproposa zela Materrarena, eta Lapurdin ere antzeko ikastegi txikiak zeudela mendearen hasieran.

1617ko eta 1623ko edizioak konparaturik, arreta ematen du bigarrenean hurrei buruzko erreferentziarik ez agertzeak. Badirudi 1623ko liburuak, 1617koak ez zuen hirugarren atal oso bat dakarrena, lapurtar oroientzat prestatu zela (atal batzuetan marinela aipatzen dira).

III.- KONTRARREFORMAREN GURPILEAN: KATIXIMAK EUROAPAN

XVI. mende erditsutik aurrera katiximak erruz inprimatu ziren Europan, fedearen oinarriak jendartean erraz hedatu eta ulertarazteko.¹ Generoaren jatorria, hala ere, protestanteen artean dago, protestanteek erabili baitzuten lehenengoz, XVI. mendean, galdera-erantzunen edo elkarrizketaren sistema, batez ere hurrei fede-gaiak erraz ulertarazteko. Horretarako, bada, liburu txiki eta merkeak baliatzen ziren. Frantziari gagozkiolarik, lehenengo dotrina argitaratua Jean Calvinena izan zen: *Catéchisme de l'Église de Genève* (1542).

Trentoko kontzilioaren testuinguruan Eliza katolikoa laster jabetu zen protestanteen metodoaren eraginkortasunaz, eta ugari erabili zituen aipatutako liburutxoak katolizismo ortodoxoa bultzatzeko eta protestantismoari aurka egiteko, jesuitak buru zirela.² Kontzilioaren eragina, haatik, ez zen herrialde eta eskualde guztietan aldi berean gertatu. Adibidez, Italian Frantziain baino lehenago hedatu zen (Corouau 2012: 162), eta euskaraz 1610eko hamarkadan eman zituen lehenengo emaitza sendoak; hots, bretoieraz baino bost hamarkada geroago, baina okzitaniaraz baino hiru hamarkada lehenago (Corouau 2008: 60 eta 2012: 172-173).

Frantsesez XVI. mendearen bigarren erdian hasi ziren katixima katolikoak argitaratzen, ordura arteko irakaskuntza paperera ekarriz. Galdera-erantzunen sistema zerabilen lehenbiziko dotrina katolikoa 1550ean argitaratu zen, baina Émond Auger jesuitaren *Catéchisme et sommaire de la religion chrétienne* (1563) katiximak arrakasta zabalagoa lortu zuen. Nerabe eta helduentzat idatzi zuen, eta protestanteen aurkako aldarria da. Lanak arrakasta handia izan zuen, eta Akitanian Jesusen Konpainiaren eskoletan erabili zen: lehenengo edizioa hilabeteen agortu bide zen, eta kaleratutako 4.600 aleetatik bakar bat ere ez da gorde.

XVII. mende hasieran, katiximen goraldi betean, ohikoak izan ziren itzulpenak, Pierre Canisiusen eta Roberto Bellarminoren jatorrizkoetatik egindakoak batik bat, eta mende erdirako erabat finkatuta zegoen dotrinen tradizioa. Canisiusen hiru dotrinek,³ esaterako, berehala ordezkatu zuten Augerren katixima arrakastatsua: Canisiusek haurrentzat prestatutako *Petit catéchisme* lanak hogeitaz edizio izan zituen XVII. mendean. Bestalde, Diego de Ledesmarek *Doctrina cristiana* (1573) frantsesera itzuli zen 1608an *Sommaire de la Doctrine chrestienne, en forme de Dialogue entre le Maître et le Disciple* izenburuarekin (Courouau 2008: 61). Frantziain tradizio italiarra nagusitu zen

¹ Atal honetarako, nagusiki Dhotelen (1967) lana hartu dugu oinarri.

² Kontzilioak prestakuntza erlijiosoa apaizen artean ere hedatzeko eta bateratzeko beharra azaleratu zuen. Horregatik, katixima luze bat prestatu zen apaizei zuzendurik (*Catechismus ex decreto Concilii Tridentini ad parochos*, 1566). Hain zuzen, hura izan zen mendeetan dotrina ofiziala apaizentzat.

³ *Summa doctrinae christianae, per quaestiones tradita et in usum Christianae pueritiae nunc primum edita* (1555), irakurle ikasientzat idatzia; *Catechismus minor* (1556), nerabeei zuzendua; eta *Parvus catechismus catholicorum* (1558), haurrentzat prestatua.

batez ere umeei dotrina irakasteko metodoetan, eta tradizio horretan kokatu behar ditugu Roberto Bellarminoren obrak, besteak beste frantsesera bihurtuak eta lan honetan aparteko lekua behar dutenak.

Roberto Bellarmino kardinalaren (1542-1621) katixima, *Dottrina cristiana breve perché si possa imparare a mente*, 1597an argitaratu zen italieraz, eta Frantzisko Saleskoak oihartzuna eman zion Frantzian. Bellarminok berak *Dichiarazione più copiosa della dottrina cristiana* luzeagoa eta mamitsuagoa kaleratu zuen 1598an, eta 1604an frantsesez argitaratu zen *Catéchisme, et ample déclaration de la doctrine chrétienne* izenburupean. Hala lan horrek nola aurrekoak Klemente VIII.a aita santuaren babesa izan zuten: ahal bezainbeste hedatzeko aginduaz gain, dotrina eskoletako eta Kristau Dotrinaren Artxikofradiaren testu bakartzat jotzeko agindu zuen (Catto 2015). Horren ondorioz, 56 hizkuntzatarata itzuli zen eta 500 ediziotik gora izan zituen (Catto 2015).

Bellarminoren dotrina laburra soila eta praktikoa da, eta lehenengoa da haurrak haurtzat tratatzen dituen; izan ere, ordura arte haurrentzako katiximak helduentzat egindakoen laburpen hutsak ziren, eta zailegi gertatu ohi zitzaizkien. Haurrentzat idaztean pasarte zailenak baztertu zituen testutik, apaiz eta eskolen bidez dotrina buruz ikastea errazte aldera, hura izan zedin hezkuntza kristaua barneratzeko bide bakarra.

Aipatuez gain, nolana ere den, beste dotrina batzuk ere argitaratu ziren, hala nola Guillaume Bailerena (*Catéchisme, et abrégé des controverses de nostre temps, touchant la Religion*, 1608).

IV.- ESTEVE MATERRAREN *DOCTRINA CHRISTIANA*: ITURRIAK

Materra eta bere *Doctrina christiana* Lapurdiko testuinguruan kokatu eta Europar XVI-XVII. mendeetan katiximek izandako garrantzia aipatu ondoren, orain arte argitzeke zegoen gai bati helduko diogu: Materraren iturriak. Izan ere, hizpide dugun dotrinaren iturriak zein izan ziren ezagutzeak argi gehiago ekar dezake bai obraren izaeraz, bai egileak Lapurdin eginiko egonaldian egiazki izandako zereginez.

Kristau-dotrina baten iturriak aurkitzea ez da beti aise, erlijio-testuen esparruan ohikoa baita liburuen edukia errepikatzea eta, are gehiago, egitura bertsuen arabera errepikatzea. Zer esanik ez otoitzen iturriak aurkitu nahi direnean: batzuk hain izan dira arruntak hainbat tradizioetan, non ezinezkoa baita iturri argirik aurkitzea.

Materrari dagokionez, lana XVII. mendearen hasierakoa izateak badu abantailarik; izan ere, zenbat eta atzerago egin denboran, orduan eta gutxiago dira iturri posibleak, nahiz eta abantaila horrek baduen bere binperra: aspaldiko lana izanik, lanen arteko lotura sendoak irudikatzea zailagoa suertatu ohi da, iturri izan zitezkeen eta ezagutu ez ditugun (edo zeharka ezagutu ditugun) lanak desagertuta egon daitezkeelako, eta ez delako beti erraz eskualde edo herrialde

jakin batean erabiltzen ziren obrak zehaztea. Artikulu honetan lan horri ekin diogu.

4.1 Aztertutako dotrinak eta lehen emaitzak

Lan honetan Materraren dotrinaren 1617ko eta 1623ko edizioak beste dotrina garaikide batzuekin erkatu ditugu, euskarazkoaren iturria aurkitzeko. Dakigula, bi argitalpen horiek dira Materrak izenpetuta egilea bera bizirik zegoela argitaratutako bakarrak. Iturriak aurkitu nahian, honako hauek eskuztatu ditugu, denak jesuitek edo jesuitekin ikasitakoek eginak:⁴

- Pierre Canisius: *Petit Catechisme* (1558)
- Diego Ledesma: *Modo per insegnar la dottrina christiana* (1573), *Dottrina christiana breue, a modo di dialogo, fra'l maestro e'l discepolo* (1589)
- Jerónimo Martínez de Ripalda: *Catecismo y exposición breve de la doctrina cristiana* (1591)
- Roberto Bellarmino: *Dottrina cristiana breve perché si possa imparare a mente* (1597), *Dichiarazione più copiosa della dottrina cristiana* (1598)
- Gaspar Astete: *Doctrina christiana* (1599)
- Guillaume Baile: *Catéchisme, et abrégé des controverses de nostre temps, touchant la Religion* (1608)
- Michel Coyssard: *Sommaire de la doctrine chrestienne, mis en vers françois* (1608)
- César de Bus: *Instructions familières sur les quatre parties du Catéchisme romain* (1666)

Lan horiek begirata, argi ikusi dugu bat etortzea nabarmena(goa) dela Bellarminoren eta Materraren lanen artean. Hori dela eta, Bellarmino - Materra lotura hartu dugu ikergai nagusi, eta bien lanen erkaketan sakonduko dugu lan honetan. Materra frantsesa zela eta, Bellarminoren frantsesezko itzulpenak

⁴ Badirudi, ikertu beharreko kontua bada ere, Lapurdin sasoi hartan frantziskotarren eragina jesuitena baino handiagoa zela. Etxauzek urte batzuk lehenago ekarri zituen frantziskotarrak Ziburura, eta komentua sortu zuen. Aldiz, jesuiten eragina Lapurdira geroago iritsi zela ematen du, Etxaux 1618an Baionako apezpiku izateari utzi ondoren (Hourmat & Pontet 1999). 1622an zabaldu zen Lapurditik gertuen zegoen Jesusen Konpainiaren kolegioa Pauen (Grendler 2019: 57), eta bertan hezitako lapurtera klasikoaren autoreak, Bernard Gazteluzar (1619-1701) eta Joannes Etxeberri Sarakoa (1668-1749), gutxienez, geroagokoak ditugu. Materraren garaitik gertuen daudenarik bat, Joannes Haranburu, frantziskotarra zen eta Joannes Etxeberri Ziburukoak, jesuita izanik ere, olerkigintza landu zuen batez ere.

erabili ditugu: Lyonen 1622an argitaratutako *Brieve doctrine chrestienne*⁵ eta Frantziako Tolosan 1616an argitaraturako *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne* bertsoiez ariko gara.

4.2 R. Bellarmino eta E. Materra: dotrinak aurrez aurre

4.2.1 Atalez ataleko erkaketa

Atal honetan, lehenik eta behin obren egiturak konparatuko ditugu. Erkaketa-lanari heltzean, lehenik Materraren 1617ko edizioaren (M1 esango diogu) iturriak arakatu ditugu. Ondoren, 1623ko edizioan (M2 esango diogu) dotrinari gehitutako atalak erkatu ditugu. Erkaketa-lana errazteko eta emaitzak agerikoagoak izan daitezen, koadro bat sortu eta parez pare jarri ditugu Materraren lehenengo bi edizioetako testua eta Bellarminoren bi lanetakoak: laburtzearen, Bellarminoren *Brieve doctrine chrestienne* lanari B1 deituko diogu, eta *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne* lanari B2. Hirugarren zutabe batean, bestalde, zenbait ohar argigarri bildu ditugu.⁶

Materra (1617)	Bellarmino (B1 & B2)	Oharrak
1. kap. «Guiristinoaren icenaz» (25. or.)	B1: «De la fin du Chretien, & du signe de la Croix» (1. kap.)	M1eko «Nondic heldu da “guiristino” icen haur?» galdera ez dago B1n.
2. kap. «Guiristinoaren seinaleaz» (30. or.)		Iturria ez da garbia. Pasarteren bat B2tik aterea izan daiteke; zehazki, «Declaration du signe de la Croix» (2. kap.) delako ataletik.
3. kap. «Guiristinoaren eguinbideaz» (34. or.)	B2: «Que c’est que la Doctrine Chrestienne, & quelles sont les parties principales» (1. kap.)	
4. kap. «Fedeeaz» (29. or.)		Ez dugu iturri ziurra identifikatzerik izan.

⁵ Ziurrenik lehenago argitaratu zen frantsesez, baina edizio hau erabili dugu, osorik dagoen edizio digitalizatu zaharrenetarikoa baita. Gaztelaniaz 1610ean argitaratutako itzulpen bat ere badago. *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne* 1604an argitaratu zen lehenbizikoz frantsesez.

⁶ Kasu batzuetan ez dugu iturri argirik aurkitu (halakoetan, beraz, gehienez ere esan liteke iturria ez zela Bellarmino), eta beste batzuetan eragina ikus daitekeen arren, frogak ez dira nahi bezain sendoak.

Mattera (1617)	Bellarmino (B1 & B2)	Oharrak
5. kap. «Articulu fedezcoez» (43. or.)	B1: «Declaration du Credo, appelle le Symbole de la Foy» (2. kap.)	
6. kap. «Articulu fedezcoen declaracinoa» (47. or.)	B1: «Declaration du Credo, appelé le Symbole de la Foy» (2. kap.)	M1eko 1. artikuluko fedezkoaren iturria (47-49. or.); B2ko 14-15. or. delakoan gaude; Elizari buruz mintzo den zatiarena (57-62. or.), aldiz, B2ko 40. or.
7. kap. «Credoan diren hamabi artikuluen errepertimenduz (66. or.)»		Ez dugu iturri ziarra identifikatzerik izan.
8. kap. «Pater nosterraren declaracinoa» (72. or.)	B1: «Declaration du Pater & de l'Ave Maria» (3. kap.)	M1eko 72-74. orrialdeen iturria ez da B1, eta M1eko 76-78. orrialdeena B2ko 74. or. eta hurrengoak izan daitezke.
9. kap. «Ave Mariaren eta Salvearen declaracinoa» (89. or.)	B1: «Declaration du Pater & de l'Ave Maria» (3. kap.)	M1eko 92-95. orrialdeen iturria B2ko 99. eta hh. eta 102 eta hh. izan daitezke; M1eko 96-97. orrialdeen atzean, aldiz, B2ko 104. or. dagoke. «“Jesus” hitz hunec cer erran nahi du?» eta «Cergatic deitzen da “salbatçaille”?» (95-96. or.) atalen iturria ez da B1. Orobat gertatzen da «Erraçu orai <i>Salve Regina</i> euscaraz» (97-99. or.) atalekin.
10. kap. «Iaincoaren manamenduez» (99. or.)	B1: «Des Commandemens de Dieu» (4. kap.)	M1eko 99-101., eta 104. eta hh. eta 120-123. orrialdeen iturria ez da B1. M1eko 109-117. orrialdeetako galderak B1ko 4. kapitulukoak bezalakoak dira, baina M1eko erantzunetan B1koetan baino zehaztasun gehiago dago.

Materra (1617)	Bellarmino (B1 & B2)	Oharrak
11. kap. «Eliça Ama Sainduaren manamenduez» (124. or.)	B1: «Des Commandemens de l'Eglise & des Conceils» (5. kap.)	M1en «Conceils» atala falta da, eta «Ba-da bertce gauçaric Eliçac manatcen edo debeatcen duenic?» (125-126. or.) atalaren iturria ez da B1.
12. kap. «Eliçaco sagaramenduez» (126. or.)	B1: «Des Sacraments» (6. kap.)	M1eko «Cer da sagaramendua?» (127. or.) atalaren iturria ez da B1. M1eko erantzunak (129-140. or.) B1ekoak baino zehatzaagoak dira.
13. kap. «Gure azquen fineco gauçez» (140. or.)		Iturria ez da garbia, baina B1en azken atala («Des quatre Fins derniers, & du Rosaire») izan daiteke, moldatua.
Bigarren edizioan (1623) gehitutako dotrinaren atalak⁷		
[IX. «Verthuteac»] (18. or.) 10. kap. «Çazpi verthute principalen declaracinoa» (139. or.)	B1: «Des vertus Theologales & Cardenales» (7. kap.)	
[X. «Perfecioneko conseilluac»] (19. or.) 11. kap. «Perfecioneko conseilluen declaracinoa» (146. or.)		Ez da garbia, baina B2ko «Declaration de Conseils Evangeliques» (8. kap.) izan daiteke, galdera batzuk gehituta.
[XI. «Obra misericordiazcoac»] (20. or.)	B1: «Des oeuvres de misericorde» (8. kap.)	
[XII. «Espiritu Sainduaren dohaiñac»] (23. or.) 12. kap. «Espiritu Sainduaren dohaiñen declaracinoa» (152. or.)	B1: «Des dons de S. Esprit» (7. Kap., 2. zatia)	

⁷ Zerbaki erromatarrekin 1623ko edizioaren 1. zatiko atalak eman ditugu. 1617koan dotrina hutsa eta horren deklarazioa batera daude, eta 1623koan lehen eta bigarren zatietan banatu dira horiek.

Bigarren edizioan (1623) gehitutako dotrinaren atalak⁸		
[XIII. «Çortci dohatsutassunac»] (24. or.) 13. kap. «Çortci dohatsutasunen declaracinoa» (155. or.)		Ez da garbia, baina B2ko «Des huict Beatitudes» (14. kap.) izan daiteke iturria.
[XIV. «Bekatuen differenciac»] (25. or.) 14. kap. «Bekatuen diferenciaren declaracinoa» (161. or.)		Ez dugu iturri ziarra identifikatzerik izan.
[XV. Bekatu mortal buruçaguiac] (26. or.) [XVI. Çazpi bekatu mortalen erremedioac] (27. or.) 15. kap. «Bekatu mortal buruçaguien declaracinoa» (168. or.)		Ez da garbia, baina B2ko «Des sept pechez capitaux» (19. kap.) izan daiteke iturria.
[XVII. Espiritu Sainduaren contraco bekatuac] (28. or.) 16. kap. «Espiritu Sainduaren contraco bekatuen declaracinoa» (172. or.)		Ez da garbia, baina B2ko «Des pechez contre le S. Esprit» (20. kap.) izan daiteke iturria.
[XVIII. Iaincoaren aitcinean oihuz mendecu esque dauden bekatuac] (30. or.)		Ez da garbia, baina B2ko «Des pechez qui crient vengeance au Ciel» (21. kap.) izan daiteke iturria.
[XIX. Bertceren bekatu uquitcen gaituztenac] (31. or.)		Ez dugu iturri ziarra identifikatzerik izan.
[XX. Arimaren etsayac] (33. or.)		Oso atal laburra da. Ez dugu iturri ziarra identifikatzerik izan.

⁸ Zenbaki erromatarrekin 1623ko edizioaren 1. zatiko atalak eman ditugu. 1617koan dotrina hutsa eta horren deklarazioa batera daude, eta 1623koan lehen eta bigarren zatietan banatu dira horiek.

4.2.2 Zenbait adibide zehatz

Aurreko koadroko erkaketaren ondoren, egoki iritzi diogu bildutako adibideetako batzuk hona ekartzeari, emandako informazioa osatzeko eta baieztapenak funtsatzeko lagungarri direlakoan. Erkaketak nahiko argi islatzen du Bellarminoren lanak Materraren iturri nagusi izan zirela, nahiz eta horrek ez duen esan nahi bat etortzea erabatekoa denik eta iturri bakarra izan zenik: parekotasunak agerikoak izan arren, edukia ez da beti berbera; are gehiago, zenbait kasutan ez dugu iturri ziburra identifikatzerik izan Bellarminoren lanen artean.

Bigarren atal honetan erkaketa-lanak azaleratutako egoerak eta gorabeherak erakutsi nahi ditugu, eta, horretarako, zenbait adibide hautatu aurkeztuko ditugu.

- (a) Sorta honetako adibideek Materraren eta Bellarminoren testuen arteko lotura islatzen dute, edukia bera baita batean eta bestean, itzulpen- eta moldatze-lanak eragindako gorabeherak gorabehera. Hona hemen pasarte batzuk:

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Erradaçu lehenbicoric, ea guiristino çarenz. IHARDESTEA. Bai, Iaincoari esquer. GALDEGUITEA. Eta nor deitzen duçu guiristino? IHARDESTEA. Iesu-Christo iaunaren fedea eta leguea eduquitcen duena, eta haren arauera bicitcen dena. [25-26]</p>	<p>M. Estes-vous Chretien? D. Je le suis, par la grace de Dieu. M. Que veut dire Chretien? D. C'est celuy, qui fait profession de la Foy, & Loy de Iesus-Christ [3]</p>

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Nola aditcen duçu laur-garren articulua, erraiten denean «pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, itçatua içan cen gurutcean, hil cen, eta ehorci»? IHARDESTEA. Iesu-Christo guere iaunac pairatu çuela añhitz gaitz Poncio Pilatus Iudeaco gobernadoreac sententia emanic, eta harc açota araciric, eta arancezco khoroa buruan eçarriric, itçatu çutela gurutcean, eta hartan hil cela bere odol guztia issuriric, eta guero, gurutctic erautsiric, ehorci çutela thomba berri batetan. [51-52]</p>	<p>M. Declarez-moy le quatrieme. D. Je croy que Iesus-Christ, pour racheter le Monde, avec son precieux sang, a enduré sous Ponce Pilate, Gouverneur de la Iudée, ayant este flagellé, couronné d'espines, & mis en Croix, en laquelle il est mort, & de laquelle estant destaché, il fut ensevely, & mis en un sepulchre neuf. [8]</p>

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Nola aditcen duçu Eliçaren battassuna?</p> <p>I HARDESTE A. Aditcen dut guiristino fidel guztiec ba-dutela parte bat bertcearen oracinoetan eta bertce obra on guztietan, nola gorputceco miembroec-ere içaiten bai-tute goço eta parte elkharren ontassunetan. [62-63]</p>	<p>M. Que veut dire la Communion des Saints?</p> <p>D. C'est à dire, la participation aux oraisons, & bonnes oeuvres, qui se font en l'Eglise: comme au corps humain tous les membres participent au bien d'un seul. [10-11]</p>

- (b) Zenbait kasutan, Materraren eta Bellarminoren obretako edukia ez da guztiz berbera; baina, antzekotasunak oso agerikoak dira, eta errazena da pentsatzea Materrak Bellarminorenetik edan zuela. Adibide garbia agertzen da, esaterako, testuari kohesioa eman nahian atalak lotzeko txertatutako zenbait pasartetan:

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Akhabatu ditugu gure doctrina christianaren laur parte principalenac, cein baitira articulu fedezcoac, oracinoac, manamenduac eta sagaramenduac, eta eracutsi nola articulu fedezcoac behar ditugun sinhetsi, oracinoetan dauntçan gauçac galdeguin, Iaincoaren eta Eliça Sainduaren manamenduac beguiratu, eta sagaramenduac errecibitu. Orai verthute principalenez eta bertce gaiñeraco lehenbico partean declaratu gabe utci ditugun gauçez behar dugu minçatu. Eta lehenbicoric erradaçu: cer da verthutea? [139-140]</p>	<p>Nous avons ja finy les quatre parties principales de la doctrine, qui sont le <i>Credo</i>, l'Oraison Dominicale, les Commandemens, & les Sacramens: Je veux maintenant que nous parlions des vertus, & des vices, & de quelque choses, lesquelles aydent fort à vivre selon la volonté de Dieu. Dites donc, combien y a-il de vertus principales ? [27]</p>

- (c) Kasu batzuetan Materraren eta Bellarminoren lanetan berbera edo bertsua da edukia, baina antolakuntza ez dator bat; zehazki, ondoko adibideetan eduki bera galdera gehiagoren bidez zatikatua aurkeztu zuen Materrak, eta horrek, ezinbestean, erantzunak zertxobait moldatu (osatu) beharra ekarri zion. Letra etzanez ematen ditugun pasarteak oso antzekoak dira, eta gainerakoetan bestelako egituraketa ikus daiteke.

Materra (1617)	Bellarmino
<p><i>GALDEGUITEA. Oracino hunec bere baithan cer eduquitcen du?</i> <i>I HARDESTEA. Eduquitcen du laburzqui cer-ere galdeguin ahal bai-tiaçaiogu Iaincoari, eta hura guztia dago çazpi othoitçetan bildua: lehen laurac ontassunaren ardietsteaz minço dira, eta bertce hirurac gaitçaren eta kaltearen khentceaz.</i></p> <p><i>GALDEGUITEA. Declara diaçadaçu hobequiago cer ontassun diren galdeguiten dituçun laur ontassun horiec, eta halaber cer gaitz diren khendu nahi dituçun hirur gaitz horiec.</i></p> <p><i>I HARDESTEA. Ontassunez denaz beçambatean, lehenbico galdeguiten dugun ontassuna da ohora eta lauda dadin Iaincoa, erraiten dugula «erabil bedi sainduqui çure icena».</i></p> <p><i>Bi-garrena, gueure arimen salbamendua, erraiten dugula «ethor bequigu çure erresuma».</i></p> <p><i>Hirur-garrena, salbamendu hunen ardietsteco garacia, erraiten dugula «eguin bedi çure borondatea».</i></p> <p><i>Laur-garrena, garacia hunen gueure baithan eduquitceco indarra eta sostengua, erraiten dugula «iguçu egun gure eguneco oguia».</i></p> <p><i>Gaitcez denaz beçambatean, lehenbico othoitcean erraiten diogu Iaincoari khen diaitçagula iragan diren gaitçac, cein bai-tira oraiñocoan eguin ditugun bekhatuac, erraiten dugula «barkha diaitçaguçu gure çorrac».</i></p> <p><i>Bi-garrenean erraiten diogu beguira gaitçala ethorquiçuneco gaitcetaric, erran nahi da tentamenduetaric, erraiten dugula «ez-caitçaçula utz tentamendutan erortcera».</i></p> <p><i>Hirur-garrenean eta azquenean othoitz eguiten diogu beguira gaitçala orai presenteon sentitcen ditugun gaitz guztietaric, erraiten dugula «aitcitic beguira gaitçaçu gaitceti. [86-88]</i></p>	<p><i>M. Que contuent en somme ceste Oraison.</i></p> <p><i>D. Tout ce qui se peut demander & esperer de Dieu, d'autant qu'il y a sept demandes: Aux quatres premieres nous demandons, qu'il nous donne le bien, & aux trois suivantes, qu'il nous delivre du mal. Et quant au bien, nous demandons premierement la gloire de Dieu: en second lieu, nostre souverain bien, tiercement, la grace pour l'acquerir, quaterment, le moyen pour avoir & conserver la dite grace. Quant au mal, nous demandons qu'il nous delivre premierement du mal passé, secondement du mal advenir, tiercement du mal present, & ainsi de tout mal. [13]</i></p>

- (d) Aurrekoaren ildotik, pasarte batzuetan berbera edo bertsua da edukia, baina ez da ordena berean agertzen Materraren eta Bellarminoren lanetan. Adibideok edukia eta egitura berrantolatu zirela erakusten dute (zenbakien bidez adierazi dugu zein pasarte dagokion zeini).

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Cer erran nahi du «trinitate» hitz hunec?</p> <p>I HARDESTE A. Iainco-bat dela hirur presunatan.</p> <p>(1) GALDEGUITEA. Eta, berriz, cer erran nahi du «incarnacino» bertce hitz hunec?</p> <p>I HARDESTE A. Hirur presuna hetaric bi-garrena (cein bai-ta semea) haraguiz beztitu cela, eguinirur presuna hetaric bi-garrena (cein bai-ta se guiçon, eta hil gurutcean, gure salbatceagatic.</p> <p>(2) GALDEGUITEA. Nola aditcen duçu Iainco-bat dela hirur presunatan?</p> <p>I HARDESTE A. Aditcen dut Iaincoa baithan ez-tela edireiten iaincotassunbat, içaite-bat eta naturaleça-bat baicen, cein ala baiña bai-tago hirur presunatan, deitcen bai-tira aita, seme eta Espiritu Saindu.</p> <p>(3) GALDEGUITEA. Cergatic erraiten duçu hirur presuna hec ez-tirela Iainco-bat baicen?</p> <p>I HARDESTE A. Ceren hirurec ez-paitute naturaleça ber-bat, içaite-bat eta botherebat baicen. [28-30]</p>	<p>(2) M. Que veut dire Unité, & Trinité de Dieu?</p> <p>D. C'est à dire, qu'en Dieu il y a une seule Divinité, ou bien une seule essence, & Nature divine, laquelle est pourtant en trois Personnes divines, qui s'appellent, le Pere, le Fils, & S. Esprit.</p> <p>[M. Pourquoi dit-on, qu'il y a trois Personnes divines? galdera eta erantzuna falta dira Mn]</p> <p>(3) M. Pourquoi ces trois personnes divines sont-elles un seul Dieu?</p> <p>D. Pource qu'elles ont une mesme essence, une mesme puissance, une mesme sapience, & une mesme bonté.</p> <p>(1) M. Que veut dire Incarnation, & mort de nostre Sauveur?</p> <p>D. C'est que le Fils de Dieu, à scavoir, la seconde Personne de la tres-sainte Trinité, s'est fait homme, & est mort en Croix pour nous sauver. [3-4]</p>

- (e) Orain arteko adibideek erakusten dute Materrak iturria moldatu edo egokitu egin zuela. Ildo horretatik, gainera, aintzat hartzekoa da Materraren dotrinako testua ez dela hitzez hitzeko itzulpena: hori erakusten dute, adibidez, edukia bat etorri arren galderak egiteko eredu ezberdinak islatzen dituzten galdera-erantzunek.

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Nola aditcen duçu laur-garren articulua, erraiten denean «pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, itçatua içan cen gurutcean, hil cen, eta ehorci»?</p> <p>I HARDESTE A. Iesu-Christo guere iaunac pairatu çuela añhitz gaitz Poncio Pilatus Iudeaco gobernadoreac sententia emanic, eta harc açota aracic, eta arancezco khoroa buruan eçarriric, itçatu çutela gurutcean, eta hartan hil cela bere odol guztia issuriric, eta guero, gurutctic erautsiric, ehorci çutela thomba berri batetan. [51-52]</p>	<p>M. Declarez-moy le quatrieme.</p> <p>D. Je croy que Iesus-Christ, pour racheter le Monde, avec son precieux sang, a enduré sous Ponce Pilate, Gouverneur de la Judée, ayant este flagellé, couronné d'espines, & mis en Croix, en laquelle il est mort, & de laquelle estant destaché, il fut ensevely, & mis en un sepulchre neuf. [8]</p>
<p>GALDEGUITEA. Nola aditcen duçu çazpi-garrena, erraiten denean «handic ethorrico da hilen eta bicien iuiatcera»?</p> <p>I HARDESTE A. Iesu-Christo gure iauna iautsico dela munduaren azquen finean cerutic maiestate handiarequin, egundaiñoco guïçon eta emazte guztien iuiatcera, eta bat-bederari emanen dioela bere obren arauaz bere merecia, onei seculaco loria, eta gaixtoei seculaco ifernua. [55-56]</p>	<p>M. Declarez la septieme.</p> <p>D. Je croy que le mesme mostre Seigneur à la fin du monde viendra du Ciel en grande puissance & gloire, & iugera tous les hommes, rendant à un chacun le loyer ou la peine qu'il aura merité. [9]</p>
<p>GALDEGUITEA. Bi-garren sagaramenduaren icenac (cein bai-ta confirmacinoa) cer erran nahi du?</p> <p>I HARDESTE A. Hambat nola fermu eta finco eçartea. Eta handic du bere icena, ceren bathaiatuei berretcen deraue Iaincoaren garacia, eta emaiten deraue etsai gaixto guztien contraco fermutassun-bat, eta-are fede sainduaren mantenatceco, eta Iaincoa gatic biciaren (behar ba-da) emaiteco esporçua eta ausartcia. [129-130]</p>	<p>D. Quel effet vient de la Confirmation?</p> <p>D. Elle fortifie l'homme, à ce qu'il n'aye crainte de confesser la Foy de Iesus-Christ nostre Seigneur, & ainsi nous fait devenir vrays soldats du Sauveur. [25]</p>

- (f) Bellarminoren B2 lanaz denaz bezainbatean, Materraren lanaren iturri izan izana frogatzea ez da B1ekin bezain erraza, baina Materraren hiru-garren kapituluan zalantzarako tarte gutxiago geratzen da, ondoko pasarteek erakusten dutenez.

Materra (1617)	Bellarmino
<p>GALDEGUITEA. Cer iaquin behar du guiristinoac bere eguinbidearen eguíteco?</p> <p>I HARDESTEA. Doctrina christiana.</p> <p>GALDEGUITEA. Cer deitzen duçu «doctrina christiana»?</p> <p>I HARDESTEA. Iesu-Christo gure iaunac arimaren salbamenduco eracutsi derauzquigun gauçen declaracino-bat.</p> <p>GALDEGUITEA. Combat parte ditu doctrina hunec?</p> <p>I HARDESTEA. Laur principalenac.</p> <p>GALDEGUITEA. Cein dira hec?</p> <p>I HARDESTEA. Articulu fedezcoac, oracinoac, manamenduac eta sagaramenduac.</p> <p>GALDEGUITEA. Cergatic ez-tira laur baiño guehiago edo gutiago?</p> <p>I HARDESTEA. Ceren guiristinoac (salbatua içaitecotçat) laur gauça behar bai-titu bere baithan eduqui: fedea, esperança, caritatea eta Iaincoaren garacia. Fedezco gauçac <i>Credo</i>an daunça, esperançazcoac <i>Pater noster</i>rean, caritatezcoac hamar manamenduetan, eta Iaincoaren garaciaren ardiestecoac çazpi sagaramenduetan.</p> <p>GALDEGUITEA. Laur gauça hautan sartcen othe da guiristinoaren eguin-bide guztia?</p> <p>I HARDESTEA. Bai, ceren hautan eracutsten da cer behar dugun sinhetsi, galdeguin, beguiratu eta errecibitu.</p> <p>GALDEGUITEA. Cer behar dugu sinhetsi?</p> <p>I HARDESTEA. Articulu fedezcoetan erraiten dena.</p> <p>GALDEGUITEA. Cer behar dugu galdeguin?</p> <p>I HARDESTEA. Oracinoetan datçana.</p> <p>GALDEGUITEA. Cer behar dugu beguiratu?</p> <p>I HARDESTEA. Iaincoac eta Eliçac bere manamenduetan manatcen dutena.</p> <p>GALDEGUITEA. Eta cer behar dugu errecibitu?</p> <p>I HARDESTEA. Eliçaco sagaramendu sainduequin batean emaiten çaicun garacia. [34-38]</p>	<p>Puisque ie recognis qu'il est necessaire de sçavoir la doctrine Chrestienne pout estre sauvé, ie desire que vous me declariez que c'est que ceste Doctrine.</p> <p>M. La Doctrine Chrestienne est un brief recueil ou sommaire de toutes les choses que nostre Seigneur Iesus-Christ nous a enseigné, pour nous monstrier la voye de salut.</p> <p>D. Combien y a il de parties principales & plus necessaires en ceste Doctrine?</p> <p>M. Il y en a quatre, a sçavoir le Credo, le Pater noster, les dix Commandemens, et les sept Sacramens.</p> <p>D. Pourquoy y en a-it quatre, et non pas plus ou moins?</p> <p>M. D'autant qu'il y a trois principales vertus, la Foy, l'Esperance, & la Charité. Le Credo est necessaire pour la Foy, car il nous enseigne ce que nous devons croire. Le Pater noster est necessaire pour l'Esperance, car il nous enseigne ce que nous devons esperer. Les dix commandemens sont necessaires pout la Charité, car il nous enseignent ce que nous devons faire pour plaire à Dieu. Quand aux Sacrement ils sont aussi necessaires, d'autant qu'ils sont comme les instrumens avec lesquels ces trois vertus sont receues & conservees lesquelles nous avons dit estre necessaires pour estre sauvé. [B2 3-5]</p>

- (g) Batzuetan, aldaketak oso txikiak dira: esaldiak zertxobait luzatu edo osatu zituen Materrak, adibidez, edukian gehiegi sakondu gabe.

Materra (1617)	Bellarmino
GALDEGUITEA. Cer erran nahi du «amen» hitz hunec? IHARDESTEA. Lekhu hunetan hambat nola «hala da eguiazqui», edo «hala sinhetsten dut nola erran bai-tut». [65]	M. Que veut dire <i>Amen</i> ? D. C'est à dire, il est ainsi en verité. [11]

5 ONDORIOAK

5.1 Ondorio orokorrak iturriez

Arakatzeko lanaren ondoren, argi ikusi dugu *Doctrina christianaren* lehenengo bi edizioak (1617 eta 1623) prestatzeko Roberto Bellarmino italiarraren bi lan baliatu zituela Materrak, gutxienez; zehazki, *Brieve doctrine chrestienne* eta *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne*. Europan XVI. eta XVII. mendeetan argitaratutako dotrinak eta zenbait egilek izandako arrakasta ezagututa (§III), emaitza ez da guztiz harrigarria, baina orain arte argitzeke zegoen nondik edan zuen lapurtera klasikoa abiarazi zuen dotrinaren egileak.

Lan honetan egindako erkaketek erakutsi dute Materraren 1617ko edizioaren atalek Bellarminoren *Brieve doctrine chrestienne* laburraren ordenari jarraitu ziotela, oro har, nahiz eta alde txikiak dauden egiturari; esate baterako, Bellarminoren laneko atal batzuk zatikatu egin zituen Materrak. Halaber, Materrarenean badago Bellarminoren lanetan agertzen ez den pasarterik; beraz, pentsatzekoa da italiarraren lanak oinarri izan arren, bestelako lan batzuk ere baliatu zituela Materrak bere ustez osatu beharrekoak osatzeko.

Beste alde batetik, badirudi Bellarminoren dotrina laburraz gain, egile beraren *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne* luzeagoa ere baliatu zuela Materrak tarteka. Egia aitortzera, zailagoa da bigarren horren erabileraren zantzuak aurkitzea, lan luzeagoa eta zehatzagoa baita, eta gehienetan Materrak egokitzea eta laburtzea jo baitzuen. Oraindik identifikatzeko ditugun liburuak balia zitzakeen: *Doctrina christianako* bederatzigarren atalean Bellarminoren bi lanetako edukia aurki daiteke, baina badira, orobat, batean nahiz bestean agertzen ez diren pasarteak ere.

Hona iritsita, garrantzitsua da azpimarratzea Materraren lana ez dela «itzulpen hutsa»: euskarazko dotrinaren hizkera aztertzean ere (Krajewska *et al.* 2017: §6) atzemana zen Materraren testuak duen jariakortasuna eta jatortasuna urrun daudela garai bateko hitzez hitzeko itzulpen-nahiak edo -beharrak eragindako trakestasunetik. Ezer egitekotan, Materrak moldatu egin zituen Bellarminoren lanak: ez dugu hitzez hitz itzultitako atal bakar bat ere aurkitu.

Aurrekoari lotuta, egokitze-lana egilearen lehentasun edo beharrezan jarraikiz egindakotzat ez ezik, Lapurdiko errealitatera hurbiltzeko saiakeratzat

ere jo behar da; esate baterako, *Doctrina christianako* hamargarren atalean sorginei eta federik gabekoei buruzko pasarteak agertzen dira, Bellarminoren lanetan ez bezala: pasarteak ondo ezkontzen zaizkio Lapurdiko (eta egungo Xareta eskualdeko) sasoi hartako gorabehera sozial eta erlijiosoei.

5.2 Materraren dotrinaren lehenengo bi edizioez (1617 & 1623)

Aurretik esan bezala, lan honetan Materraren dotrinaren lehenengo bi edizioak, 1617koa eta 1623koa, izan ditugu aztergai. Dotrinak argitalpen gehiago izan zituen XVII. mendean bertan, baina lehenengo biak dira egilea bizi zela (nahiz eta Lapurditik kanpo bizi) argitaratutako bakarrak.

Lehenengo edizioan argi ikusten da Bellarminoren oinarria, erakutsi dugunez. Bigarren edizioari dagokionez, oinarrian lehenengo edizioako testua du, baina 1617koak zuen bezainbat testu gehitu zitzaion 1623koari; hots, edizio osatutzat edo zabalduzatzat jo daiteke.

Bigarren edizioaz denaz bezainbatean, lehenengoan agertzen ez diren zenbait kapituluak ere Bellarminoren *Brieve doctrine chrestienne* dute oinarri; adibidez, Bellarminoren lan horretako zazpigarren eta zortzigarren kapituluak agertzen dira Materraren 1623ko edizioan, baina ez 1617koan. Dena den, Materraren dotrinan Bellarminorenean baino askoz ere luzeagoak dira bekatuei buruzko atalak: Bellarminoren dotrina laburrak kapitulu bakarra dakar gaiaren inguruan, eta Materrarenak sei. Egia esatera, ezin bazter daiteke atal luzeago horiek neurri batean Bellarminoren *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne* luzeagoa izatea oinarri, baina Materraren egokitzapenek zaildu egiten dute lotura garbiak egiteko aukera. Bestalde, aurkitzeke dago Materraren 1623ko hirugarren atalaren iturria (bigarren edizioari gehitu zitzaion eta funtsean otoitzak biltzen ditu). Lan honetarako zenbait bilaketa- eta erkaketa-lan egin ditugun arren, ez dugu aurkitu otoitz horien jatorri zehatza, eta lan honek irekita uzten duen ikerketa-ildotxo da.

Materraren dotrinaren iturriak aurkitzeko, berebizikoa izan da 1617ko lehenengo edizioaren aurkikuntza; izan ere, 1623ko edizioarekin bakarrik zailagoa zatekeen ikustea Bellarminoren lanekiko lotura, dotrinaren egitura ezberdina baita. Oro har, Materraren dotrina (batez ere 1623ko edizioa, nahiz eta 1617koarekin ere hala gertatzen den) luzeagoa eta zehatzagoa da Bellarminoren *Brieve doctrine chrestienne* baino; baina, Bellarminoren *Catéchisme et ample déclaration de la doctrine chrétienne* baino laburragoa eta soilagoa ere bada.

5.3 Azken hitza

Obra baten iturriak ikertzea ohiko aztergaia izan da filologiaren esparruan, baina iturriak aurkitzeak ez du zertan azken helburu izan. Idazle batek nondik edan duen aztertzean idazlea bera garai eta giro jakin batean kokatzeko abiapuntu bikaina izan daiteke, bai eta idazlearen izaeraz (mailaz, jakintzaz,

joera ideologikoez eta abarrez) gehiago jakiteko bidea ere. Lan honetan ikusi dugu Materra ez zela nolana hiko (ez, gutxienez, oraintsu arteko historiografiak emandako bigarren edo hirugarren mailako) elizgizona: iradoki dugu Lapurdira ekartzeko arrazoi nagusia Kontrarreformaren barnean zukeen izen ona egon zitekeela. Halaber, Europan XVI-XVII. mendeetan arrunki baliatzen ziren liburuak ezagutu eta euskarara ekarri zituela erakutsi dugu: europar (eta, zehatzago, frantziar) testuinguru zabalean kokatu eta ulertu behar da Materra, eta, testuinguru horren barnean, Lapurdin edo Ipar Euskal Herrian Kontrarreforma ezartzeko gidari gisa.

BIBLIOGRAFIA

- Aldekoa, I. (2013) «Bernard Etxepare: *Doctrina Christiana* y poesía amoriosa», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 44(2), 1-40. or.
- Arejita, A. (2004) «Agustin Kardaberaz: zenbait hizkera ezaugarri eta bizkaieraren iturriak», in Pérez-Gaztelu, E. + Zulaika, E. (arg.) *Agustin Kardaberaz. Hirugarren mendeurrena (1703-2003)*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 91-124. or.
- Bergin, J. (1999) «The Counter-Reformation church and its bishops», *Past & present*, (165), 30-73. or.
- Bilbao, G. (2014) «Obras de referencia latinas y otras fuentes en el *Gero* (1643) de Axular», in Ruiz Arzalluz, I., Martínez Sobrino, A. + Muñoz García de Iturrospe, M. T. (arg.) *Estudios de filología e historia en honor del profesor Vitalino Valcárcel*, Bilbo, UPV/EHU, 151-168. or.
- Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J. A., Manterola, J., Mounole, C. + Urgell, B. (2020). *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa: sarerra, edizioa eta oharra*, Bilbo, UPV/EHU.
- Courouau, J.-F. (2008) «L'imprimé religieux en langue bretonne (1526-1660)», *Annales de Bretagne et des Pays de l'Ouest. Anjou. Maine. Poitou-Charente. Touraine*, (115-3), 57-79. or.
- Courouau, J.-F. (2012) *Et non autrement: marginalisation et résistance des langues de France (XVIe-XVIIe siècles)*, Geneva, Droz.
- Dedieu, H. (1977) «Etienne Materre, franciscain français écrivain d'expression basque», *Bulletin du Musée Basque Bayonne*, 76(2), 97-100. or.
- Dhotel, J. C. (1967) *Les origines du catéchisme moderne: d'après les premiers manuels imprimés en France*, Paris, Aubier.
- Etxagibel, J. (2015) «Pouvreauren Hiztegiaren antolakuntzaz», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 49(1), 275-401. or.
- Gómez López, R. (2004) «Astarloaren Discursos filosóficos: iturriak eta axiomak», *Lapurdum*, 9, 117-133. or.

- Gómez López, R. (2008) «Berriz Aizkibelen Euskera eskuizkribuaz: edizio eta iturriak», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 42(1), 333-380. or.
- Gómez López, R. (2013) «Gehiago Pierre Urteren gramatikaren iturriez: Lilyren gramatika», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 44(2), 335-365. or.
- Grendler, P. F. (2019) *Jesuit Schools and Universities in Europe, 1548-1773*, Leiden & Boston, Brill.
- Hourmat, P. + Pontet, J. (arg.) (1999) *Autour de Bertrand d'Etchauz, Evêque de Bayonne, Actes du colloque des 17 et 18 septembre 1999*, Baiona, Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne.
- Krajewska, D., Zuloaga, E., Santazilia, E., Ariztimuño, B., Uribe-Etxeberria, O. + Reguero, U. (2017) *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana: edizioa eta azterketa*, Bilbo, UPV/EHU - Euskaltzaindia.
- Lafitte, P. (1940) *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Baiona, Le Livre.
- Michelena, L. (1960) *Historia de la literatura vasca*, Madril, Minotauro.
- Mounole, C. + Lakarra, J. A. (2018) «Euskara Arkaikoa», in Gorrochategui, J., Igartua, I., + Lakarra, J. A. (arg.) *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 345-468. or.
- Oyharçabal, B. (1999) «Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat», *Lapurdum*, (4), 81-105. or.
- Peillen, T. (2011) «Agosti Chahoren hiztegiko aitzin solasean hitzen iturriak», *Euskera*, 56(3), 687-696. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2000) «Axularren testu-zorrak», *Fontes Linguae Vasconum*, (84), 193-210. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2002) *Iraupena eta lekukotasuna: euskal literatura idatzia 1900 arte*, Donostia, Elkar.
- Salaberri Muñoa, P. (2010a) «ABC, edo christinoen instructionea (1571)», *Egan*, (3-4), 111-138. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2010b) «Leizarragaren *Kalendrera*: ariera eta korapiloak», *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 32, 117-141. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2013) «Intertestualitatea abiaburu: Haranburu Materreren harrobian», *Euskera*, 58(2), 631-686. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2016) «Bertrand Etxauz Euskal Letretan irudikatua (Rapsodia)», in Aurrekoetxea, G., Makazaga, J. M., + Salaberri Muñoa, P. (arg.) *Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz*, Bilbo, UPV/EHU, 249-278. or.

- Salaberri Muñoa, P. (2017a) «Axularren lantegian. Iturbegi ezezaguna *Geroren* lehen kapituluaren bilbean», *Fontes Linguae Vasconum*, (124), 251-275. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2017b) «Axularren liburutegia arakutzen: Aipu klasikoak *Geron*», *Egan*, (3-4), 119-142. or.
- Salaberri Muñoa, P. (2017c) «Axularren liburutegia irudikatzen: Erliziozko aipuak *Geron*», *Egan*, (3-4), 77-118. or.
- Sarasola, I. (1976) *Historia social de la literatura vasca*, Bartzelona, Akal.
- Suire, E. (2000) «L'épiscopat français au temps de B. d'Etchauz», in Hourmat, P. + Pontet, J. (arg.) *Autour de Bertrand d'Etchauz, Evêque de Bayonne, Actes du colloque des 17 et 18 septembre 1999*, Baiona, Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne, 83-92. or.
- Urgell, B. (1991) «Axular eta Larramendi», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 25(3), 901-928. or.
- Urgell, B. (2002) «*Hiztegi Hirukoitzaren* kanpoko eta barruko historiaz», in Lakarra, J. A., Artiagoitia, X. + Goenaga, P. (arg.) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk ASJUren gehigarriak* (44), 629-649. or.
- Urgell, B. (2011) «Martin Harrieten hiztegiak: eraketari buruzko zenbait berri», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 43(1-2), 873-889. or.
- Villasante, L. (1961) *Historia de la literatura vasca*, Oñati, Sendo.
- Zuloaga, E. + Krajewska, D. (inprimategian) «Authors and languages in sociohistorical context: Basque religious literature in seventeenth-century France». *Journal of Historical Sociolinguistics* aldizkarian argitaratzeko.

